



ZIZURKILGO UDALA

EZ OHIKO OSOKO BILKURARAKO
DEIA

Honen bidez, Ez Ohiko Osoko Bilkurara deitzen dizut:

Eguna: **2014ko maiatzaren 31, larunbata**

Ordua: **10:00**

Tokia: Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa

CONVOCATORIA A PLENO
EXTRAORDINARIO

Por la presente le convoco a la Sesión de Pleno Extraordinario a celebrar:

Día: **31 de Mayo de 2.014, sábado**

Hora: **10:00**

Lugar: Salón de Plenos de la Casa Consistorial.

EGUNEKO AZTERGAIK

1.- LLADÓ (GIRONA) ETA ZIZURKIL UDALERRIEN ARTEKO SENIDETZE ERABAKIA.

Zizurkilen, 2014ko maiatzaren 28an.

Alkatea.

ORDEN DEL DIA

1.- ACUERDO DE HERMANAMIENTO ENTRE LOS MUNICIPIOS DE LLADÓ (GIRONA) Y ZIZURKIL.

Zizurkil, 28 de Mayo de 2.014

El Alcalde.





ZIZURKILGO UDALA

**2014ko MAIATZAREN 31n
EGINDAKO EZ OHIKO OSOKO
BILKURAKO AKTA**

**ACTA DE LA SESION DE PLENO
EXTRAORDINARIO CELEBRADA EL
DIA 31 DE MAYO DE 2014**

Partaideak/ Señores Asistentes:

ALKATEA / ALCALDE:

José María Luengo Zapirain Jauna (Bildu)

ZINEGOTZIAK/CONCEJALES:

Alaitz Ormazabal Goenaga (Bildu)

Leire Zubeldia De Esteban (Bildu)

Eva Usandizaga Mujika (Bildu)

Aitor Sarasua Arruti (Bildu)

Aritz Esnaola Arruti (Bildu)

Nerea Lizarraga Gabirondo (Bildu)

Aratz Alkorta Irazusta (Bildu)

M^a Angeles Lazkano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.).

IDAZKARIA /SECRETARIO:

José Ramón Eceizabarrena Garmendia

Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, bi mila eta hamalauko maiatzaren hogeita hamaikako hamar orduak direnean, Zizurkilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate jaunaren lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren zinegotzien partaidetzarekin. Oscar Martínez Orive (P.S.E.-E.E./P.S.O.E.) eta Egoitz Soroazabal Iturain (E.A.J.-P.N.V.) zinegotziak ez dira etorri.

Lehendakaritzaren aginduz bilkura hasi da eta Idazkariak jakinarazi du berau egin daitekeela legez ezarritako quoruma bertan dagoelako.

**1.- LLADÓ (GIRONA) ETA ZIZURKIL
UDALERRIEN ARTEKO SENIDETZE
ERABAKIA.**

Alkate jaunak idatzi bat irakurri du, Lladóren eta Zizurkilaren arteko senidetze-ekitaldirako Lladótik Zizurkilera etorri eta Osoko Bilkuren Aretoan dauden herritarrei ongietorria egiteko. Idatzi hori Akta honen I. eranskin gisa jasota dago.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, siendo las diez horas del día treinta y uno de Mayo de dos mil catorce, se reúne la Corporación del Ayuntamiento de Zizurkil bajo la presidencia del Señor Alcalde y con la asistencia de los Señores Concejales que arriba se citan, no asistiendo los concejales Oscar Martínez Orive (P.S.E.-E.E./P.S.O.E.) y Egoitz Soroazabal Iturain (E.A.J.-P.N.V.).

Abierta la Sesión de orden de la Presidencia, el Secretario informa que la misma puede celebrarse por concurrir a ella el quórum legalmente establecido.

**1.- ACUERDO DE HERMANAMIENTO
ENTRE LOS MUNICIPIOS DE LLADÓ
(GIRONA) Y ZIZURKIL.**

El Señor Alcalde da lectura a un escrito de bienvenida a los vecinos de Lladó que se han desplazado a Zizurkil y están presentes en el Salón de Plenos para asistir al hermanamiento de ambos municipios. Este escrito es el que se refleja en el Anexo I de este Acta.



ZIZURKILGO UDALA

Aldi berean, Eva Usandizaga zinegotziak idatzi horixe bera irakurri du katalanez.

Ondoren, bozketa egin da proposatutako senidetzea onartzen den ikusteko, eta udalbatzak, aho batez, erabaki du onartzea Lladó eta Zizurkil udalerrien arteko senidetzea.

Ondoren, bi udalerrietako Alkateek, Lladóko Joan Fàbrega i Solé jauna eta Zizurkilgo Jose Maria Luengo Zapiain jauna, bi udalerrien arteko senidetze-agiria sinatu dute. Akta honetako II. eranskinean jasota dago agiri hori.

Lladóko Alkateak eskertu egin du jasotako harrera ona, eta Marià Llavaneraren "Lladó" koadroren kopia bat eta Arenys de Munten dagoen "Monument a la independència"ren erreplika bat eman dio Zizurkilgo herriari.

Atzoko egunean Zizurkilera iristean ongietorria emateko erabili zituzten txalapartako makilak oparitu dizkio Zizurkilgo Udalak Lladóko herriari.

Beste aztergairik gabe, eta hamar orduak eta hogeita hamar minutuak direnean, Batzarra amaitu da eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

O.I.
ALKATEA.

Vº Bº
EL ALCALDE.



Simultáneamente la concejal Eva Usandizaga da lectura a dicho escrito en catalán.

Posteriormente se realiza la votación correspondiente para ver si se aprueba el hermanamiento propuesto, y la Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar de hermanamiento de los municipios de Lladó y Zizurkil.

Seguidamente los Alcaldes de ambos municipios, Don Joan Fàbrega i Solé de Lladó y Don José María Luengo Zapiain de Zizurkil, firman el documento del hermanamiento de ambos municipios, que es el que se refleja en el Anexo II de este Acta.

El Alcalde de Lladó agradece el recibimiento dispensado y hace entrega al municipio de Zizurkil de una copia del cuadro "Lladó" de Marià Llavanera y de una réplica del "Monument a la independència" que está en Arenys de Munt.

El Ayuntamiento de Zizurkil regala al de Lladó las "makilas" con las que se interpretó la txalaparta al darles la bienvenida a Zizurkil el día de ayer.

Y sin más asuntos que tratar, y siendo las diez horas y treinta minutos, se levanta la Sesión, de la cual, yo, el Secretario, doy fe y certifico.



I ERANSKINA – ANEXO I

ZIZURKILGO UDALA

Ongi etorri guztioi. Zizurkilgo Udalarentzat pozgarria da gaurko eguna. Zizurkil Kataluiniako Lladó herriarekin anaieratzera doa. Orain urtebete hasitako bidean jarraitzeko konpromezua agertzen dugu horrela. Orduan asmo gisa aipatutako senidetzea erabat gorpuztuko da gaur. Irailean, Lladón, babes zabala jaso zuen senidetzeak eta Zizurkilen ere horrela izan da.

Bi naziotako anaiak gara. Bi hizkuntza gutxitu ditugu. Bi kultura ezberdin. Baina borondatea bat eta bakarra. Elkarrengandik ikastea, elkar hobeto ezagutzea. Gaur Udalean sinatzen dugun senidetze hau, herriko beste hainbat alorretara zabalduko da datozen hilabeteetan, onartuko dugun hitzarmenak jasotzen duen gisan.

Irailean Zizurkilgo 55 bat lagun Lladón izan ginen. Benetan zuen senide sentiarazi gintuzuen. Gaur zizurkildarrok gauza bera erakutsi nahiko genizueke. Izan dadila gaurkoa elkarrekin egingo dugun bidean beste urrats bat. Eskerrik asko Lladó.



ZIZURKILGO UDALA



LLADÓ (Girona) eta ZIZURKIL (Gipuzkoa) **udalerriak senidetzeko akordioa**

SENIDETZEKO HITZARMENAREN AURKEZPENA

Lladó (Girona) eta Zizurkil (Gipuzkoa) udalerrietako alkateek, bakoitzak bere udalerriaren izenean,

Adierazten dute:

Bi udalerrien arteko laguntasun eta senitarteko lotura dela eta, eta bake, askatasun eta oparotasun asmo berak bultzatuta.

Uste dugu herritarren artean interes berberak izatea herrien arteko bakea eta senitartekotasuna lortu eta mantentzeko bide bat dela.

Ziur gaude udalerrien arteko elkarlan estuaren ondorioa izango direla bientzako onura sozialak, kulturalak eta materialak.

Eta, beraz, herrien arteko benetako senidetasun eta elkarlaguntza harremanak ezarri nahi ditugu, lehen adierazitako helburuak lortzeko. Horretarako ondorengo oinarrien arabera Akordio hau gauzatzen dugu:

LEHENA



Bi udalerrietako Alkateek, Lladó eta Zizurkilgoek, konpromisoa hartzen dugu bi udalerrietako Udalen arteko harreman jarraitua izateko, bertako biztanleen arteko elkartruke kultural eta sozialak bideratzeko, horrela elkar ulertze, elkarlaguntza eta elkartasuna bultzatuz, eta elkarrekiko senidetasun eta ulermen harremanak bideratzeko.

BIGARRENA

Bi udalek konpromisoa hartzen dute, berez eta libreki, senidetutako herri izaki, udalerrien arteko hazkuntza sozial, kultural eta materiala lortzeko elkarlaguntza errazteko, horrela elkarren bake, laguntza eta oparotasun nahiean oinarritutako afektuzko harremanak indartuz.



ZIZURKILGO UDALA



HIRUGARRENA

Aurreko puntuak gauzatu ahal izateko ekintza desberdinak landuko dira bi udalerrien artean, esparru sozial, kultural, hezkuntza, kirol eta turismo arloko jarduerak gauzatzea hain zuzen ere.

LAUGARRENA

Senidetutako udalerrietako Udaletatik izaera sozialeko harremanak bultzatuko dira nabarmendutako beharrei jarraiki eta baterako interesak asetzeko xedez. Guztien gogoak betetzeko moduan egiteko, bi udalerriek jarriko dituzte, bakoitzaren aukera eta konpetentzien arabera, beharrezko diren laguntzak.

BOSGARRENA

Hauek izango dira udalerri bakoitzaren beraren kulturaren ezagutza bultzatzeko eta bertako biztanleek elkartasun eta laguntasun harremanak eta bi udalerrien arteko elkarlaguntza iraunkorra ezartzen lagunduko duten jarduera batzuk:

Bi Udalen artean kultura eta informazio harreman eta elkartrukaketak ezartzea, elkar ezagutzeko herritarren eskura jarriko direlarik.

Topaketak udalerri bakoitzean, bere ingurune sozialera gerturatzea bultzatzeko eta toki bakoitzeko bertako ohitura eta kultura partekatu ahal izateko.

Interesdun gaiei buruzko informazio trukaketa eta konferentziak egitea.

Maiztasunez liburuak, aldizkariak eta edonolako argitarapenak elkartrukatzea.

Udalerri bakoitzako ikasle eta familiak trukitzea.

Senidetutako udalerriarekin zerikusia duten erakusketak egitea (argazkiak edo izaera kultural eta artistikoko beste batzuk).

Kultur jarduera desberdinak gauzatu, hala nola, udalerri bakoitzeko ohiturak erakusten dituzten jarduera edo antzerkiak.

Llado eta Zizurkil udalerrien arteko senitarteko, elkarlaguntzako eta ezagutzarako harremana bultzatzen lagunduko duten antzeko beste jarduera batzuk egitea.



ZIZURKILGO UDALA

SEIGARRENA



Senidetutako bi udalerrien artean hainbat kirol jarduera gauzatzea bideratuko da, bakoitzeko kirol elkartearen bidez, horrela aisia osasungarrian eta jarduera fisikoan oinarritutako harremana bultzatuko da, edonolako kirol konpetizioak eginez.

ZAZPIGARRENA

Bi udalerrietako herritarren artean ondasun turistikoa eta kulturala ezagutzea bultzatuko da. Hori lortzeko, honelako jarduerak bideratuko dituzte Udalek:

Senidetutako udalerrian eta inguruetan ibilaldiak antolatzea edo horretan laguntzea.

Eskatzen duenari senidetutako udalerriari buruzko informazioa ematea: data nabarmenak, kultur jarduerak, kartelak, iragarkiak, jai, turismo eta kultur programa desberdinak, inguruari buruzko datuak,...

Bi udalerrien arteko kultura eta turismoa sustatzea helburutzat duten elkarteetara laguntza eskaintzea.

ZORTZIGARRENA

Senidetutako bi udalerrien arteko elkarlaguntza eta truke jardueren antolaketa senidekotasun harremanak sustatzeko bertako biztanleen interesek eskatzen duten eta udalek egoki iritzitako adina zabal eta ugaria izango da. Egingo diren jardueren zerrenda ez dago, beraz, itxia eta gehitu ahal izango dira elkarren interesekoak izan eta bi udalerrietako senidekotasun loturak ezarriz elkar ezagutza bultzatuko duten jarduerak, inizatiba, ekintza edo gai guztiak.

BEDERATZIGARRENA

Udaletik sustatu egingo da herritar guztiek bai udaletik eta bai herriko elkarteetatik edo interesdun kolektiboetatik antolatutako jardueretan parte har dezaten, eta horien berri zabalduko du baldin eta elkar ezagutza, senidekotasun harremana edo udalerrien oparotasuna bultzatzera bideratuak badaude eta akordio honetan ezarritako helburuak betetzen badituzte.



ZIZURKILGO UDALA

HAMARGARRENA

Adosten dugu Senidetze Akordio honen iraupena mugagabea izango dela eta bere iraupena bi udalerrien borondateak zehaztuko duela, kontutan izanik bi udalerrien elkar ezagutza eta ongizate eta aurrerapenera zuzendutako jardueren garapena bermatuko duten harreman estu eta senidetuak mantentzeko nahiak lotuak daudela.

Eta borondate honekin sinatzen dugu agiri hau bi Alkateek

Sinatua:   Lladóko Alkate Jauna

Sinatua:   Zizurkilgo Alkate Jauna

Zizurkilen, 2014ko maiatzaren 31n